

7. GAIA:

INSTRUKTOREAREN EGINKIZUN ZEHATZAK ETA AITORTZA

Irakasle taldea
ELORDI GÜENAGA, UDANE
HUITZI EGILEOR, JOSEBA XABIER
IZAGIRRE OTAEGI, ANDREA
UGARTEMENDIA YEROBI, MAIDER
URANGA ITURRIOZ, MARÍA JOSÉ
ZUBELDIA ETXEBERRIA, JOSUNE

Practicumean, ikasleek haien ikaskuntzaren protagonista eta buru izan behar dute. Irakasle tutoreen eta instruktoreen eginkizuna irakaskuntza-ikaskuntza prozesua gidatzea da (1). Hiruko horretan, instruktoreek funtsezko rola dute; izan ere, kalitatezko mentoretza funtsezko prozesu bat da ikasleek praktiketako zikloan ikasi beharreko guztia ikasiko dutela bermatzeko (2,3). Erizaintzako ikasleen tutoretza prozesuan, bi gai nagusitan jarri behar da arreta: batetik, ikasleei testuinguru klinikoan ikasten lagundu behar zaie, eta, bestetik, alderdi profesionala landu behar da (4).

Instruktorearen helburu nagusia ikasleei ikaskuntza prozesuan laguntzea, eta kalitatezko erizaintza zaintza emateko beharrezkoak diren gaitasunen eskuratzea sustatzea da (5). Horretarako, instruktoreek ikasleekiko interakzioa sustatu behar dute, irakasle tutoreekin batera egindako ikaskuntza hitzarmenean proposatutako helburuak betetzen direla zaindu behar dute, ikasleekin batera helburu klinikoak ezarri behar dituzte, ikasleen ikaskuntza prozesuan ingurunezko funtsezko agenteak inplikatu behar dituzte, eta ikasleen garapen praktikoa babestu eta zaindu behar dute (6,7).

Instruktoreak engranaje moduko bat dira, praktiketan dauden ikasleek ezagutza teorikoak ikaskuntza klinikoko inguruneetan modu seguruan aplikatzea ahalbidetzen dutenak (8). Ingurune horietan, instruktoreek bost alderdi hauek zaindu behar dituzte: ingurune fisikoa segurua dela; funtsezko agenteekin interakzioa dagoela, ikasleek ikasiko dutela bermatzeko; pazienteekin eta familiakoekin harremanak ezartzen direla; ikasleen ikaskuntza bultzatuko duen erakunde kultura bat dagoela; eta, azkenik, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ikaslearentzat positiboa dela (6,9). Gainera, tutoretza prozesuak berebiziko garrantzia du, arestian aipatutakoaz gain, ikasleek pentsamendu kritikoa garatzea sustatu behar duelako, hori baita, aldi berean, UPV/EHUren Erizaintzako Graduak zeharkako gaitasunetako bat (6,9).

Era berean, instruktoreek harreman estua izan behar dute irakasle tutoreekin, harreman horren bidez ikasleen indarguneak eta hobetu beharreko alderdiak zehazteko, eta practicumerako garrantzitsuak diren ezagutzak hobetzen eta indartzen laguntzeko (6).

UPV/EHUren Donostiako Campuseko Erizaintzako Graduaren testuinguruan, lehen adierazitako guztia kontuan hartuta, instruktoreak honako alderdi hauek landu beharko ditu:

1. Harrera prestatzea:

Ikasleei zentro hartzailean egin beharreko harrera prestatu beharko dute instruktoreek. Horretarako, ikasleei buruzko dokumentazioa berrikusi beharko dute, eta egingo dituzten txandak planifikatu, kontuan hartuta inguruneko funtsezko agenteek edo taldeek diotena, eta aintzat hartuta irakasle tutoreek antzemandako alderdi garrantzitsuak, halakorik balego.

2. Harrera:

Instruktoreak zentro hartzailean ikasleari harrera egingo dio; ikasleak harrera ordu eta leku zehatzaren berri izan beharko du. Harrera horretan, funtsezkoa izango da instruktoreak konfiantzazko ikaskuntza giro bat sustatzea, eta, horretarako, hurbiltasuna, prestutasuna eta babesa erakutsi beharko dizkio ikasleari, hark bere ikaskuntza prozesuan lidergo rola har dezan.

Harrera modu egokian egiten bada, ikasleak modu eraginkorragoan ekingo dio praktiken zikloari, arreta ikaskuntza prozesuan jarriko du, eta haren helburu nagusia ez da izango instruktorearen eta taldearen onarpena lortzea, literaturak arlo honetan agerian uzten duen moduan (9).

Horretarako, instruktoreak bere burua eta taldea aurkeztu beharko ditu, izen-abizenak, karguak, txandak eta abar adieraziz. Era berean, ikasleari ere espazio bat eskaini beharko zaio, bere burua aurkezteko (izen-abizenak, maila, aurretiko esperientzia, interesak, etab.). Ikasleak sinadura orria ere entregatu beharko du. Orduan, bi aldeen arteko komunikazio formala egiteko modua eta gorabeherak jakinarazteko sistema erabakiko dituzte.

Era berean, instruktoreak honako hauek azaldu beharko ditu: ikasleak praktiken zikloa zer ingurune/testuingurutan egingo duen, ingurune horretako egitura funtzionala, dauden lantaldeak, eta erizaintzako eginkizun zehatzak. Gainera, praktiken plangintza adostuko dute.

Harrera horretan, halaber, ikaslearen praktiken zikloa baldintzatu dezaketen alderdiak zehaztu beharko dira.

Instruktoreak azpimarratu beharko du ezinbestekoa dela ikasleak bere gain hartzea ikaskuntza prozesuaren erantzukizuna eta lidergoa. Horretarako, ikasleak ikaskuntzaren emaitzak antzematen dituela ziurtatu beharko du, eta argi adierazi beharko du ikasleak erabakiko (eta esango) duela noiz dagoen prest, prozedura jakin bat laguntzarik gabe behar bezala egiten duela egiaztatzeko.

Instruktoreak, halaber, ikasleari gogoraraziko dio garrantzitsua dela nork bere burua zalantzan jartzea, modu kritikoan, galderen bidez eta elkarrekin hausnartuz.

Ikasleek espazio edo tarte bat izan beharko dute zer itxaropen dituzten adierazteko, eta instruktoreak horiek balioetsi eta, beharrezkoa bada, egokitu egin beharko ditu.

Azkenik, erizaintzako taldeak ikaslearen irakaskuntzan izango duen parte hartzea azaldu beharko du instruktoreak.

Amaieran dagoen taulan (1. taula), instruktoreen funtsezko erantzukizunak adierazi dira. Erantzukizun horiek UPV/EHUren Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Gipuzkoako Ataleko instruktoreek, irakasle tutoreek eta ikasleek erabaki dituzte, elkarlanean (1).

3. Ebaluazioa

Ikasleen ebaluazioa bi unetan egingo da: bigarren tutoretzan, eta hirugarren eta azken tutoretzan. Tutoretzen hasieran, instruktoreak ebaluazio proposamena aurkeztu beharko du ebaluazio orriaren arabera (atal guztiak balioetsi beharko ditu), eta egiaztatutako prozedurak berretsi beharko ditu (halakorik badago). Azkenik, ikaslearen azken nota adostu beharko du irakasle tutorearekin.

Ebaluazioari eta kalifikazioari buruzko xehetasunak 9. gaian daude.

1. taula: Instruktoareen erantzukizunak (uneak eta alderdiak)

PRACTICUMA HASI AURRETIK. HARRERA PRESTATZEA	
Ikasleari buruzko dokumentazioa berrikusiko du.	
Ikasleak unitate-zentroan izango dituen txandak planifikatuko ditu, kontuan hartuta taldeak dioena, eta aintzat hartuta unibertsitateko tutoreak aipatutako hobekuntza arloak, halakorik badago.	
Ikasleari HARRERA zentro-unitatean, alde zehaztutako lekuan eta unean: instruktoareak konfiantzazko ikaskuntza giro bat sustatu behar du, eta, horretarako, hurbiltasuna, prestutasuna eta babesa erakutsi beharko dizkio ikasleari, hark bere gain hartu dezan ikaskuntzaren erantzukizuna.	
Banakako aurkezpena (nor gara?): Instruktoareak bere burua aurkeztuko du: izen-abizenak, kargua, txanda/k.	
Ikasleak bere burua aurkeztuko du: izen-abizenak, maila, aurretiko esperientzia.	
Ikasleak sinadura orria entregatuko du (e-gela plataformatik inprimatu ostean)	
Ikaslea eta instruktoarea elkarrekin komunikatzeko modua erabakiko da, bi norabidetan (posta elektronikoa, telefonoa, aurreikusitako bilerak...).	
Gorabeherak jakinarazteko sistema ezarriko da (hutssegiteak, atzerapenak...).	
Egitura fisikoa aurkeztuko du, in situ (non gaude?): espazioak, materiala...	
Egitura funtzionala azalduko du (nola lan egiten dugu?): Taldeak / pertsonak Erizainaren eginkizunak	
Praktiken zikloaren plangintza azalduko du (txandakakoa arloz arlo, halakorik badago.....).	
Kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk (teknika espezifikokoak, mugak...)	
Ikasleak bere ikaskuntzaz arduratu behar duela azpimarratuko du:	
Azpimarratuko du garrantzitsua dela ikaskuntzaren emaitzak argi izatea.	
Azpimarratuko du ikasleak erabaki behar duela noiz dagoen prest, prozedura jakin bat laguntzarik gabe egiten duela egiaztatzen.	
Gogoraraziko du garrantzitsua dela araudia betetzea.	
Azpimarratuko du ikasteko prozesuan garrantzitsua dela galdetzea eta hausnartzea.	
Ikasleari galdetuko dio ea zalantzarik duen, tutoretza prozesuari, ebaluazio sistemari (autoebaluazioekin) edo beste alderdiren bati buruz.	
Ikasleari galdetuko dio zer itxaropen dituen. Itxaropen horiek balioetsi eta, behar izanez gero, egokitu egingo ditu.	
Taldea aurkeztuko du, eta erizaintzako taldeak irakaskuntzan izango duen parte hartzea azalduko du.	
ZIKLOAREN ERDIALDEKO ETA AMAIERAKO TUTORETZEN AURRETIK: EBALUAZIO PROPOSAMENA PRESTATUKO DU	
Ikaskuntzaren emaitzen ebaluazioa prestatuko du ebaluazio orriaren arabera, beharrezko informazioa bildu ondoren (taldearen balorazioa...).	
Ikaslearen gogoetazko autoebaluazioaren orria ebaluatuko du.	
ZIKLOAREN ERDIALDEKO ETA AMAIERAKO BATERAKO TUTORETZETAN PARTE HARTUKO DU, IRAKASLE TUTOREEK BIDERATUTA	
Kalifikazioa agente guztien artean adostuko da (ikaslea, instruktoarea, irakasle tutorea).	
Ikaslearen indarguneak zehaztuko dira, eta, beharrezkoa bada, hobetu beharreko arloak proposatu.	
ZIKLOA AMAITU ONDOREN: GOGOBEETETZE INKESTA BETEKO DU	

BIBLIOGRAFIA

1. Uranga Iturriotz MJ, Gil Molina P, Alberdi Erice M, Barandiaran Lasa M, Eizmendi Garate I, Elordi Güenaga U, et al. Diseño del Practicum del Grado en Enfermería. Practicumaren diseinua Erizaintzako Graduan. [Internet]. 2022. [kontsulta, 2022/04/01]. Eskuragarri: <http://hdl.handle.net/10810/56179>
2. Foolchand D, Maritz JE. Experience of nurses regarding the clinical mentoring of student nurses in resource-limited settings. *Heal SA Gesondheid* [Internet]. 2020 Aug 6; 25. Available from: <http://www.hsag.co.za/index.php/hsag/article/view/1434>
3. Doyle K, Sainsbury K, Cleary S, Parkinson L, Vindigni D, McGrath I, et al. Happy to help/happy to be here: Identifying components of successful clinical placements for undergraduate nursing students. *Nurse Educ Today* [Internet]. 2017 Feb; 49:27–32. Available from: <https://linkinghub.elsevier.com/retrieve/pii/S0260691716302556>
4. Jokelainen M, Turunen H, Tossavainen K, Jamookeeah D, Coco K. A systematic review of mentoring nursing students in clinical placements. *J Clin Nurs* [Internet]. 2011 Oct; 20(19–20):2854–67. Available from: <https://onlinelibrary.wiley.com/doi/10.1111/j.1365-2702.2010.03571.x>
5. PramilaSavukoski S, Juntunen J, Tuomikoski A, Kääriäinen M, Tomietto M, Kauhi BM, et al. Mentors' selfassessed competence in mentoring nursing students in clinical practice: A systematic review of quantitative studies. *J Clin Nurs* [Internet]. 2020 Mar 23; 29(5–6):684–705. Available from: <https://onlinelibrary.wiley.com/doi/10.1111/jocn.15127>
6. Mikkonen K, Tomietto M, Tuomikoski A-M, Miha Kauhi B, Riklikiene O, Vizcaya-Moreno F, et al. Mentors' competence in mentoring nursing students in clinical practice: Detecting profiles to enhance mentoring practices. *Nurs open* [Internet]. 2022 Jan; 9(1):593–603. Available from: <http://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed/34726336>
7. Tuomikoski A-M, Ruotsalainen H, Mikkonen K, Kääriäinen M. Nurses' experiences of their competence at mentoring nursing students during clinical practice: A systematic review of quantitative studies. *Nurse Educ Today* [Internet]. 2020 Feb; 85:104258. Available from: <https://linkinghub.elsevier.com/retrieve/pii/S0260691719309955>
8. Hart E. The experience of preparing for and transitioning to registered practice. *Br J Nurs* [Internet]. 2019 Mar 28; 28(6):362–8. Available from: <http://www.magonlinelibrary.com/doi/10.12968/bjon.2019.28.6.362>
9. Jack K, Hamshire C, Harris WE, Langan M, Barrett N, Wibberley C. "My mentor didn't speak to me for the first four weeks": Perceived Unfairness experienced by nursing students in clinical practice settings. *J Clin Nurs* [Internet]. 2018 Mar; 27(5–6):929–38. Available from:

<https://onlinelibrary.wiley.com/doi/10.1111/jocn.14015>